

3.6. Planaren ebaluazio-sistema

2013-2016 epealdirako Irungo III. Berdintasun Plana urteko planen bidez antolatu eta garatuko da. Urte bakoitzaren hasieran, urte horretan martxan jarriko diren ekintzak identifikatu eta planifikatuko dira. Urte amaieran, egindakoa eta egin gabekoa (urteko balantzea) baloratuko da eta hauxe eta Plan osoa kontuan hartuz, hurrengo urterako plana zehaztuko da.

Era honetan, urteko planak eta hauen aurrekontuak ebaluazioarekin lotura estua izango dute. Aipatutako ebaluazioa, sortuko diren egitura guztietan aldiro egingo da urtea amaitu aurretik.

Ezarriko den ebaluazio-ereduari esker, etengabe gogoeta egin ahal izango da ekintzak planifikatzekoan, plana burutzen ari denean eta plana amaitutakoan ere bai. Horrek Planaren jarduerari, emaitzei eta eraginei buruzko balorazio-irizpideak emango dizkigu, irizpide oinarrituak eta komunika daitezkeenak. Horren ondorioz, egungo ekintza doitzeko eta geroko ekintza hobetzeko modua emango duten erabakiak hartzeko ondorioak eta gomendioak lortuko dira.

Ebaluzio eredu honi esker, hasieratik planifikatu ahalko dira interesak ondoko helburuak ardatz hartuta:

- Irungo Emakumeen eta Gizonen III. Berdintasunerako Plana aplikatzearen emaitzak ezagutzea.
- Emaitza horiek planean zehazturiko irizpideen arabera baloratzea.
- Planaren ekintzekin berekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Geroko planak aplikatzeko gomendioak ezartzea.
- Informazio interesgarria egituratzea eta erreferentzia izan daitezkeen adierazleak egitea.

Ebaluazio-sistema horren ezaugarri nagusia metodologia parte-hartzaileak eta mistoak erabiltzea da, baita jarraitua izatea, jarduteko arduradunen esleipena eta ekintzak hobeto sistematizatzeko programa guztiak eta emaitzak bilatzea ere. Jarraian, ezaugarri horiek azalduko dira:

- **Ebaluazio mistoa da**, urteko balantzea aurkeztu eta kontrastatuko delako Arloen Arteko Berdintasunerako Mahai Teknikoan (teknikariak) eta Berdintasunerako Batzordean (elkarte eta alderdi politikoetako ordezkariak).

- **Etengabeko ebaluazioa da**, zeren eta esku hartu behar duen arlo bakoitzean berdintasunean dauden aurrerapenak ezagutzeko erreferentzia gisa balio duen hasierako diagnostikoa egiten baita. Ekintza eta helburu bakoitza amaitu ondoren, arduradunek eta inplikaturiko pertsonak ekintza horien garapenean izandako lorpenak eta zailtasunak baloratuko dituzte. Hartara, helburu bakoitzak bere adierazleak ditu. Adierazle horiek zer neurtu behar den adierazten dute, eta berdintasunaren garapena interpretatzen lagunduko dute. Ekintza bakoitzeko ebaluazio fitxa bat bete beharko da; bertan ekintzaren emaitzak adieraziko dira, eta fitxa hori urteko balantzean gehituko da.
- **Arduradunekin egin beharreko ebaluazioa da**. Ebaluazioko une bakoitzak bere arduradunak ditu: hasierako ebaluazioa, jarraipena eta urteko ebaluazioa Arloen arteko Batzordeak egingo ditu, e jarraipenaren eta ebaluazioaren berri emango zaio Berdintasun Kontseiluari.
- **Emaitzak gehituz egingo den ebaluazioa da**, zeren eginiko prozesu guztiak laburbilduko baitira eta guztizko emaitzen balorazio orokorra eta azkena emango baita.
- **Emaitzen ebaluazioa da**, ekintzen produktuen (jarduerak, materialak, laguntzak) eta ondorioen azterketa egin beharko baita.
- Eta azkenean, **lau urtetako plana amaitzerakoan ebaluazio zabalago bat egingo da**, bai planaren betetze-maila, bai eta horren emaitzak eta herrian izan duen inpaktua neurtzeko.

Analisirako metodologiak kontuan izango ditu hainbat iturritatik bildutako informazio kuantitatiboak zein kualitatiboak. Horiexek izan daitezke bai datu-bankuak, argitalpenak, arloen informazioa, bai prozesuan sorturiko dokumentuak. Datuek helburu bakoitzeko eta garatu beharreko ekintza bakoitzeko ezarritako adierazleei emango diete erantzuna.

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

- Eraginkortasuna, hots, Planak dakartzan esku hartzeko ildoetan eta neurrietan inplizituki ezarritako helburuen betetze-maila.
- Proiektuen estaldura eta planean integraturiko zerbitzuak erabiltzea.
- Aurrekontua gauzatzea.
- Eta jarraipen prozesuan bildutako datuen kalitatea.

Plana egoki kudeatzeko eta ebaluatzeko bi tresna eranstean zaizkio dokumentu honi:

- Alde batetik, Exceleko tresna bat plangintza kudeatzeko; tresna horren bidez, plana egiazko baliabidea eta, gainera, baliabide dinamikoa izan dadin lagundu nahi da (1 Eranskina)
- Beste aldetik, fitxa bat; berez planeko jarduerak ebaluatzeko fitxa gisa edo, bestela, erabiltzeko sortu nahi litzatekeenaren eredu gisa balioko lukeena. (2 Eranskina)